

## 1978

### DBLH-KO PATRONATUAREN BATZORDEA

#### -1978ko MAIATZAREN 9a-

DBLHren zuzendariak hauen berri eman zuten:

- José Quintana OLT eta segurtasun eta higieneko batzordeko kide denaren erretiroa; eta haren tokia hartzeko Arantxa Otaño kontratatzea.
- 1976-77 ikasturtean jasotako ezohiko diru-laguntza, Hizkuntzen Laborategi bat erosi eta instalatzeko erabiliko dena.
- Institutu Politeknikoen erregulazio berria. Hala izendatu dira hauek: Arrasateko Eskola Politeknikoa. Gasteizko Jesus Langilearen Eskola. Bartzelonako Sarriako Eskola Tekniko Profesional salesiarra, Madrilgo Atotxako salesiarrak eta Buitragoko Santa Maria. Komeni da DBLH Institutu Polirekniko izendatzea, prestigio kontuengatik (eskualdeko erreferentziako ikastetxea), eta arrazoi ekonomikoengatik (diru-laguntza gehiago).
- Ikastolen Federazioari eskaera, Lanbide Heziketako irakaskuntza euskaraz emateko. DBLHren ingurunea ez da euskalduna. irakasleek ez dute hizkuntza gaitasunik eskolak euskaraz emateko (103 irakasletik 17k bakarrik dakite euskaraz). Ikastetxeak ezin du LH euskaraz irakatsi. Euskarazko irakaskuntza eta irakasleen prestakuntza bultzatuko da, baina epe luzera.

## 1979

### DBLH-ko LIBURUTEGI ZERBITZUAREN USTIAPEN KONTRATUA

1975eko Urriaren 1ean DBLH-ko liburutegiaren zesio eta ustiapen kontratu bat sinatzen da. Alde batetik, Gregorio Astienza Stocke jauna (Gipuzkoako Aurrezki Kutxaren ordezkari gisa); eta bestetik Loreto Ibarguren Urteaga andereak (zesiodun gisa) dokumentuan azaldutako baldintzen arabera akordioa sinatzen dute. Kontratua 2 uretkoa da, luzatzeko aukerarekin, eta urteko alokairu kantitatea 45.000 pezetatan ezartzen da.

## 1980

1980ko Otsailaren 8an Miguel Rodríguez Fuentes "el Capi", DBLHko automobilismo departamentuko buru eta irakasle zein Ejertzituko infanteria komandante dena, tiroka erailtzen dute Institutuko atean bertan. Otsailaren 12an, ETA (m)-ak bere gain hartzen du atentatua hedabide ezberdinetara igorritako komunikatu batekin.

## 1982

- [1982-83 ikasturtea](#).- Ikasturte honetan Laborategiko Operadorearen lanbidea aldatu egin da; orain kalitatearen kontrol orokorra izango da.

## 1983

### GIPUZKOAKO AURREZKI KUTXAREN PROPOSAMEN TXOSTENA, HEZKUNTZA SAILAK CIUDAD LABORAL DON BOSCO BERE GAIN HAR DEZAN

#### -1983ko ABENDUAREN 6a-

Txosten horretan jasotzen da langileek zenbat ordutan egon behar duten ikastetxean lanean:

- Irakasleak: urtean 1380 ordu.
- irakasleak ez diren langileak (administrariak, mantentze-lanetakoak, garbitzaileak eta zaindariak):

urtean 1750 ordu.

DBLHk gizarte-zerbitzu hauek ematen ditu:

- 1000 ikasleki kirola egiten dute ikastetxeko instalazioetan.
- 12 klub DBLHn entrenatu eta lehiatzen dira.
- Eskola futboleko 50 taldek parte hartzen dute Hezkuntza Ordezkaritzak DBLHn antolatzen duen fasean.

## **-ABENDUAREN 23a-**

DBLHko langileen Biltzarreko idatzia Gipuzkoako Aurrezki Kutxak Hezkuntza Sailari OHO eteteko bideraturiko espedientearen inguruan. Bertan, aipaturiko Biltzarrak Gipuzkoako Aurrezki Kutxari etenaldi espedientearen gelditzea eskatzen dio Eusko Gobernua eta Kultura Sailaren arteko negoziazioak irauan artean; eta baita Enpresa Batzordeko kide baten presentzia Eusko Gobernuarekin egindako negoziatioetan, informazio zehatz eta egia lortze aldera.

## **1984**

### **GIPUZKOAKO AURREZKI KUTXAREN GIZARTE EKINTZEN BATZORDEA**

#### **-1984ko OTSAILAREN 23a-**

DBLH mantentzeko arazoa dela eta. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak hitzez agindu zuenari jarraiki, 1984-85 ikasturtetik aurrera OHO ixteko erabakia berraztertzea adostu da; ikasketak kentzeko erabakia atzeratu egin da, Autonomia Elkarteko Administrazioak urteko laguntza ekonomikoa handitzeko aurreikuspenak bete artean.

DBLH mantentzeko aurrekontuan defizita murriztu beharra dago, gutxienez 13 milioi pezeta; hori da Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailetik itxaron daitezkeen diru laguntzetatik handiena.

DBLHren administrazioari eta zuzendaritzari eskatu zaio alderdi hauen azterketa egiteko: kostuak, gelen okupazio-indizeak, ikasle/irakasle ratioak, lansaioak eta LHko espezialitateen eskaera; ikasketa horien etorkizunaz erabakiak hartu ahal izateko; eta hala badagokio, ikastetxea homologatzeko Hezkuntza Sailak adierazten dituen jarduketa-ildo orokorrekin.

### **GIPUZKOAKO AURREZKI KUTXAREN GIZARTE EKINTZEN BATZORDEA**

#### **-1984ko OTSAILAREN 25a-**

Hezkuntza Saileko ordezkariarekin izandako elkarrizketen ondoren, erabaki da 1983ko azaroaren 5eko erabakia atzeratzea. DBLHn OHOk ikasketak kentzeko espedientea bideratzekoa. Arrazoa hau da: Gipuzkoako Aurrezki Kutxak laguntza ekonomiko gehiago jasoko du, eta horri esker, defizita % 8 murriztuko da.

Gipuzkoako Aurrezki Kutxa elkarrizketarako prest dago, ikastetxea maila guztietan homologatzeko (ikasketa edo espezialitate berriak hezkuntza saiakuntzan); Hezkuntza Sailak egin duen ahaleginaren truke, eta ziur dagoelako DBLHren bidez euskal gizartearen sektore garrantzitsu bati erantzuna eman dakiokela.

### **HEZKUNTZA-KULTURA SAILAK GIPUZKOAKO AURREZKI KUTXAREN GIZARTE EKINTZAKO ZUZENDARIORDEARI IDATZIA**

#### **- 1984 OTSAILAREN 29a-**

OHO-ko ekintza akademikoen etenaldiaren espedientearen inguruan ondorengo xehetasunak bereizten dira: OHO eta LH mailetan ematen den trataera eta lehenengoaren kasuan dirulaguntza arruntak zein familien baimendutako ordainketak euspen kostu guztiei gehitu behar zaizkielarik, aipatzekoa da ez dugula OHO-ko jarduera eteteteko arrazoirik aurkitu. Hala ere, indarrean dagoen legeriaren arabera, erdizkako etenaldiaren eskubidea aitortzen da.

LH mailan berriz, eta egungo norantza akademikoen politika aurrerakoi baten testuinguruan, departamentu honek hitzarmen ezberdinen promozioa gartzen dihardu, hauen helburua Estatu mailako dirulaguntzak osatzea delarik, familien zuzeneko ordainketak murriztu eta instalazioen modernizazioa bideratzeko.

Kostu guztiei aurre egiteko dirulaguntzen eragina gutxiegi den arren, bigarren legislaturan jauzi kualitatibo bat emango denaren ustea dugu, doakotasunerako zein aktibo ibilgetuaren eraberritzerako.

Ikuspegi honekin eta 1984eko aurrekontuen largura, epe laburrean Entitate eta Departamentu honen arteko hitzarmen zehatzaren formalizazio aukera benetakotuko da.

Dokumentua Pedro Mendieta Garmendia Jaunak (Heziketako Kontseilariordea) sinatzen du.

## GIPUZKOAKO AURREZKI KUTXAREN GIZARTE EKINTZEN BATZORDEA

### -1984ko EKAINAREN 2a-

Berretsi da Martínez Sein doktorea enpresako mediku izendatzea, zendu zen Aldanondo doktorearen ordean.

## 1986

### PATRONATUAREN BATZORDEA

#### -1986ko UZTAILAREN 29a-

1985eko ekitaldian kezkatuta daude; izan ere, ikastetxean tresna asko hondatzen da eta mantentze-gastuak handitu egin dira, tresnak zaharrak direlako.

Zuzendariak hauen berri eman du:

- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak araudi bat egin du ikastetxe kontzertatuen eta Administrazioaren arteko harremanak zehazteko. Kontzertu horren bidez, baldintza ekonomikoak, baldintza akademikoak eta antolaketa-baldintzak adosten dira. Onurak eta eragozpenak azaldu ditu, eta iragarri du 1986ko uztailaren 21ean hitzarmena sinatzeko beharrezko agiriak aurkeztu direla.

- OHOk lehenengo mailako matrikula sustatzeko egin diren ahaleginak, bai antolakuntza aldetik eta bai publizitatearen aldetik. Emaitzak ez dira onak izan (48 ikasle bakarrik matrikulatu dira). OHOk lehenengo mailako sortzea proposatu du, B ereduakoa (gaztelaniaz eta ikasgai batzuk euskaraz). Horretarako, irakasleak prestatu behar dira (OHOk irakasleak liberatu, euskara ikasteko eta B erudian eskolak emateko behar diren tituluak eskuratzeko), eta euskarako irakasle bat kontratatu behar da, prestakuntza-saioetan dabilen irakasleak ordezkatzeko. LHn ere euskararen arazoa garrantzitsua da. Euskararen irakaskuntza aldatzeko proposamena egin da: ezagutza maila ematea, ikasturteka eman beharrean; horrela ikaskuntza homogeneoagoa izango da. Azkenik, euskarako irakaslea kontratatzea onartu da.

- Txandakatzeko plana. Hezkuntza-plan berrien arabera, LHko ikasleei lansaio jarraitua ezartzeko aukera aztertuta da. Txandakako Prestakuntzarako Euskal Planaz hitz egin da. Plan horren arabera, ikasketak eta enpresetako praktikak batera egin daitezke (astean 25 ordu ikastetxean eta beste 15 ordu enpresan).

- Arautu gabeko ikastaroak. Foru Aldundiari txosten bat eman zaio. Europako Gizarte Funtsetan bidez, hezkuntza-ekintza mota hori garatzeko diru-laguntza jaso ahal izateko. Aldundiarekin bilera egin da, eta Don Bosco-ren eskaintzarako funtsezkoak diren 4 lerro hauek azpimarratu dira:

- Lanbide-prestakuntza, lehenengo lana bilatzen ari diren gazteentzat.
- Proiektu jakinetarako prestakuntza berezia.
- Graduatuak birziklatzeko prestakuntza.
- Teknologia arloan eguneratzeko prestakuntza profesionala, enpresetako profesionalentzat.

Lerro horiek ez dute gastua handitu behar, autofinantzatu egin behar dira. Ontzat eman da, izan ere, irakasleak birziklatzeko eta eguneratzeko balio du, eta Don Bosco-ri etorkizunerako aukera berriak ematen dizkio.

Lansaio jarraitua (8:00etatik 14:30era) ezartzeko beharra. Txandakako Prestakuntza Plana garatu ahal izateko. Guraso eta ikasleei egindako inkestetan lansaio jarraituaren aldeko iritzia nagusitu da. LHII-ko ikasleekin lansaio jarraitua probatzeko baimena eman da.

Tutoretza egitegatik kobratzen den kantitataren eguneratzea (ikasturteko 50.000 pezeta ordu beteko dedikazio zehaztua).

## 1989

### FINKEN ELKARTZE ETA OBRA BERRIAREN DEKLARAZIOA

#### - 1989ko OTSAILAREN 8a-

Eskrituran, Iruñako Eskolako Benito Corvo Román notario gorenak azaltzen du Jesús M<sup>a</sup> Alcain Domínguez Jaunak (Carlos Sistiaga Coarasa Jaunak boterea emanda eta Gipuzkoako Aurrezki Kutxaren ordezkari gisa) adierazten duela:

- Gipuzkoako Aurrezki Kutxa lursail ezberdinen jabe dela: a) Gipuzkoako Foru Aldundiari erositako Errenteriako 'Astillero' baserriaren partzela (15028,46 m<sup>2</sup>); b) Concepción Lafarga y Garbuno Andereari

Donostiako Altza barrutian erositakoa (2660 m<sup>2</sup>); c) bereizitako eta Pasaiaiko Udalarekin trukaturako partzela (3249 m<sup>2</sup>); d) Real Compañía Asturiana de Minas-ekin trukaturako lursaila (15,78 area); e) 789 m<sup>2</sup> Edicon S.L. -rekin trukatu eta Pasaiaiko Portuko Obren Batzarrak egindako 3436m<sup>2</sup>-ko desjabetzearen ostean, desagertutako 'Sorginzulo' baserriaren partzela (38068,08 m<sup>2</sup>) f) Concepción Lafarga y Garbuno Andereari Erreterian erositako partzela (297 m<sup>2</sup>); g) Concepción Lafarga y Garbuno Andereari Erreterian erositako (535,55 m<sup>2</sup>); h) Concepción Lafarga y Garbuno Andereari Donostian (Altza) erositako partzela (6100 m<sup>2</sup>); i) Real Compañía Asturiana de Minas-i erositako partzela (1793,54 m<sup>2</sup>); eta j) Real Compañía Asturiana de Minas-i erositako Arditurri trenbideari zegokion partzela (573 m<sup>2</sup>).

- Aipaturako lurrek "Ciudad Laboral Don Bosco" bezala izenpetutako barrutia osatzen dutela eta finka bakar moduan erregistratzeko interesa dagoela, Erreteria (46935,08 m<sup>2</sup>) eta Donostia (12544,05 m<sup>2</sup>) artean kokatua, nahiz eta, Europistas S.A.-k buruturiko desjabetzeen ostean, azalera erreala 59479,73 m<sup>2</sup>-koa izan.

- Azken finka honek Bilbo-Behobia autopista, Pasaiaiko zubia eta Real compañía Asturiana de Minas-en partzela dituela iparraldean mugakide; hegoalde, Sociedad Edicon en lursailak, 'Esnabide' baserriarenak, Pasaiaiko ur biltegiak hartzen duen partzela, eta Juan Zayas Jaunaren lurak mugakide dituela; ekialde, Sociedad Edicon-en lursailak; eta mendebalde, Juan Zayas Jaunaren lur eta Autopista eta Pasaiaiko portuaren lotura hartzen duen sailarekin.

- Finkaren barruan obra berria aitorzten dela ondoren aipatzen diren eta Gipuzkoako Aurrezki Kutxak eraikitako pabiloi eta eraikinak barne: a) Eraikin nagusia (luzeran 177 metro eta sakoneran 11 metro dituen eraikin errektangeluarra); b) Elizaren eraikina (62x16 metroko nabea eta 36x15,5 metroko zeharkako nabe bat duen gurutze formako eraikina); c) Hezkuntza orokorreko pabiloia (lursailaren puntu altuenean kokaturiko eraikina, tailer, ikasgela eta bulegoei esleitua) d) Elektronika, Kimika eta Automobilismo heziketarako dorrearen pabiloia (31x29 metroko 6 solairu errektangeluarreko eraikina) e) Hitzadi-Antzerki aretoa (antzerki, zinema, ikuskizun ezberdinak burutzeko, 550 besaulkientzako kapazitatea); f) Kiroldegi pabiloia; g) Frontoi itxia h) Futbol zelaia; i) Kirol zelaiak; j) Atletismo pista; k) Saskibaloia pista; eta l) komunak eta aldagelak.

- Finka multzoaren balorea 10.642543 pezetakoa dela, eta eraikitako obrena 121.418759 pezetakoa.

## 1990

### DONOSTIAKO 3 ZBKI DUEN JABEGOAREN ERREGISTROA

#### - 1990ko URTARRILAREN 24a-

Román Arrieta Guzmán Jaunak (Arrieta Gestoria) Jabegoaren Erregistroari eskatzen dio Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Ciudad Laboral D. Bosco eta Karga Egoeraren jabea delaren ziurtagiria. Sagardia erregistroak ziurtatzen du Gipuzkoako Aurrezki Kutxaren jabego dela eta azken hau lurrazpiko ubide eta beste mugapen konstruktiboekin Zentsu eta Menpekotasunekin zamatuta dagoela. Finkako erregistro egoeraren kopiak batzen dira.

1990ko Aurrekontua: 201.963.000 pezetako defizita eta 38.000.000 pezeta obra eta ekipamendurako.

## 1991

1991ko Aurrekontua: 194.258.000 pezetako defizita eta 41.500.000 pezeta obra eta ekipamendurako.

## 1993

### ERRETERIAKO DON BOSCO LAN HIRIA INSTITUTU POLITEKNIKOA

### EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOKO ZENTRU PUBLIKOEN SAREAN

### SARTZEKO HITZARMENA


#### -1993ko MAIATZAREN 24a-

Hitzarmenean ageri da, alde batetik Fernando Buesa Blanco Jaunak (Heziketa Sailburua Euskal Autonomi Erkidegoaren izenean) eta bestetik Xabier Alcorta Andonegui jaunak (Gipuzkoako eta Donostiako Aurrezki Kutxa eta Baitetxearen izenean) azaltzen dutela:

- Otsailaren 19ko 1/1993 Legeko Zortzigarren xedapen gehigarriak Heziketa Administrazioa balioztatzen du sare publikoan sartu nahi duten zentru horiekin beharrezko hitzarmenak burutzeko.
- Autorizazio honen arabera Euskal Administrazio eta Instituto Politécnico Ciudad Laboral Don Bosco-k honako hitzarmena hau burutzen dute azken hau Euskal Autonomi Erkidegoko zentru publikoen sarean ondorengo ezaugarriekin sartzeko:



- 1.- Hitzarmenaren objektua.- DBLH zentru publikoen sarean sartzea.
- 2.- Jabetasun.- Aurrezki Kutxak eta Baitetxeak DBLH-ren jabetasun juridiko-administratiboa ematen dutela .
- 3.- Ondarea.- Aurrezki Kutxak ondasun higiezin, higikor eta inbentarioaren ondarea ematen dio, eta Euskal Administrazioak, emandako ondare hauen gaineko kargak bere gain hartzen ditu.
- 4.- Zorrak.- Euskal Administrazioak DBLH-ko irakaskuntza jarduerako zor guztiak bere gain hartzen ditu.
- 5.- Egokitzapen obrak.- Aurrezki Kutxak eta Baitetxeak, hitzarmen honen ondorioz, DBLH-n burutu behar diren eraberritze obrak aurrera eramateko el importe total de 582 milioi pezeta emateko konpromisoa hartzen dute.
- 6.- Langileria.- Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazioa DBLH-k bere langileekin dituen lan harreman guztiak subrogatzen ditu. Langile hauek (107 langile, finko zein aldi batekoak) aurreko enplegatzailearekin zituzten eskubide eta betebeharrak berdina mantenduko dituzte, euren plazak ezabatzeko deklarazioa egingo den arren.
- 7.- Zentruaren Heziketa deskripzioa.- 1992-93 ikasturtean zehar DBLH-n OHO, Erdi Mailako Heziketa Erreforma eta LH lehen eta bigarren mailako 54 talde aurki daitezke, guztira 1704 ikasle (411 OHO-n eta 1293 Erdi Mailako Heziketa Erreforma eta LH-n)



kutxa

1977-1994

Departamenturako Antolatutako Zuzendakariak: KUTXAREN GIZONIA. Etxeko Zentro pribatua.  
Dirección local de Organización Departamental. Obra Social de la KUTXA. Centro privado.

1977


Los Salesianos de San  
C.L. Don Bosco

1980

Asociación  
D. Miguel Rodríguez Fuentes  
"El Capa"

1989

Agrupación de Finanzas y  
declaración de obra social



**DON BOSCO LANBIDE-IKASTETXEA**  
**CIUDAD LABORAL DON BOSCO**

IKASTETXEA  
PUBLIKOAK  
IKASTETXEA  
PUBLIKOAK

**DON BOSCO LAN HIRIKO PERTSONAL LAIKOA:** Miguel Ariztegui; Juan Turquety; José M<sup>a</sup> Artola; J. Antonio Ibáñez; Jesús Arizcorreta; José M<sup>a</sup> Burgos; José Luís Linazasoro; Manuel Larrea; J. Antonio Gastelurrutia; José Torrado; Andrés Rojas; Javier Candial; Luís Revuelta; Eduardo Malagón; Pancraccio Poncela; Ángel Bernal; José M<sup>a</sup> Nieto; Jorge Romay; J. Manuel Roncal; M<sup>a</sup> Carmen Ema; Domingo Mata; Eliseo Calvo; Julio Irasuegi; Jesús Arnaez; Gregorio Astienza; Begoña Zurutuza; Antonio Igoa; Agustín Díaz; Enrique Ayala; Juan Galarraga; Antonio Montesinos; Vicente Echeverría; Ramón Rodríguez; Rosaura Ordóñez; Emilio Martín; José Fuentes; Francisco Frutos; Sebastian Aguirreche; J. Antonio Legorburu; Rafael Bajo; J. Ramón Hoyos; Néstor D' Anjou; Tomás Cepa; Jesús Presedo; José M<sup>a</sup> Roura; Miguel Salsamendi; Juan A. Roteta; Francisco Olaiz; Ramón Mejorada; Elena Royano; Luís M<sup>a</sup> Bandrés; M<sup>a</sup> Aranzazu Echarri; Luís Carlos Santiago Zabaleta; M<sup>a</sup> Belén Mongelos; M<sup>a</sup> Teresa Erro; Ildefonso Diez; Presentación Vega; Mariano Arriaran; Ignacio Ercibengoa; M<sup>a</sup> Asunción Delgado; Pedro Curto; José M<sup>a</sup> Gil; Arturo González; José Rey; Laura Castillo; Mikel Arnaez; M<sup>a</sup> Juncal García; J. Antonio Charlín; Ernesto G. Amoros; Perico Arrieta; Jesús Muñoz; Secundino González; Luís P. Echenique; Hilario Negueruela; M<sup>a</sup> José Otermin; Jesús M<sup>a</sup> Ascasibar; José Garbayo; Jesús Ramírez; Luís M<sup>a</sup> Lecuona; Antonio De Vicente; Ángel Aguirrebeña; Jesús R. Iturria; Jesús Bea; José Antonio Muñoz; Valeriano Pache; Félix Aguado; Loreto Ibarguren; Castor Olcoz; M<sup>a</sup> Asunción Artola; Eduardo Dovale; Celestino Mendez; M<sup>a</sup> Ángeles Torquemada; José J. Sorrondegui; Ramón Ugarte; Lourdes Beaumont; Manuel Reboredo; Manuel Adrián; Encarnación Martín; Mikel Berasarte; J. Antonio Goikoetxea; Martín Letona; Nicolás Sagarzazu; Simón Rodríguez; Lourdes Mendizabal; Demetrio Lazcanotegui; Mateo Mujika; Rosa Benito; Jesús Amatriain; Antonio Muro; Esther De la Iglesia; Iñaki Asa; Pedro Mnez. Sein; Andrés Torrubia; Beatriz Torrubia; Ricardo Martín; Belén Merino; Celeste Irurieta; Juan A. Vega; Aitor Otaño; Luís M<sup>a</sup> Carrasco; José M<sup>a</sup> Cuerdo; Fernando Mansilla; J. Carlos López; Iñigo Regil; Iñigo Beroitz; Martín Subizar; Maite Biurrarena; Juan Luís Zubillaga; Arrate Makazaga; Ana Tolosa; Xabier Egaña; Iñaki Del Campo; Carlos Lizarbe; Iratxe Osa; Miguel A. Erauskin; Juan Manuel Sarasua; Joseba Maiza; Jon Labaka; J. Antonio Quijera; Iñigo Etxabe; José M<sup>a</sup> Lizeaga; Iñaki Retegi; Iñigo Etxeburua; Luís M<sup>a</sup> Orena; Fco. Javier Izquierdo; Aitor Apaolaza; Mikel Hernández; Silvestre Balerdi; Andrés Urkidi; J. Ignacio Lizaso; Juanjo Arsuaga; Emi Ayensa; Jokin Cabello; Aitor Ibarguren; Nerea Loinaz; Dani Ruiz Zeberio; Josune Escudero; Gotzon Bereziartua; Jaione Aranguren; M<sup>a</sup> Carmen Rubio; Arrate Zubiaga; Ana M<sup>a</sup> López; Amaia Esnaola; Aitor Legarreta; Estefania Herrador; Iñaki Otaegi; Unai Erauskin; Rubén Guenetxea; José Luís Palacios; Arantza Juanena; Arantzazu Olasagati; Sabino Eiguren; Andone Arzac; Mikel Carcedo; Marga Jauregi; Ricardo Sologaistua; Rita Papin; Pello Bereziartua; Kepa De La Iglesia; Izaskun Garmendia; Ander Lertxundi; Xabier Dorronsoro; Argiñe Cámara; Haritz Bastarrica; Aitor Bilbao; Pedro Gurrutxaga; Itziar Bueno; Zigor Erkizia; David Ruedas; Juan I. Arrieta; José J. Pagola; Armando Martínez; Jokin Iraeta; Jesús Cabrero; Aitzol Izquierdo; Idoia Bujanda; Jon Perurena; Iker Aratzeta; Kepa Arzelus; Josune Zabala; Jorge Yanguas; Andrés Monreal; Gotzon Berrojalbiz; Gorka Fayos; M<sup>a</sup> Jesús García; Zigor Torres; J. Bernardo Pérez; Iñaki Ureta; Beñat Doyharzabal; Iñigo Bobillo; Patxi Pillado; Xabier Alduntzin; Larraitz Lakuesta; Arantza Zamora; Nerea Foronda; Iñaki Tolosa; Ignacio de Frutos; ... eta zerrendan agertu ez arren, gure oroimenean ezabatu ezinik ditugun beste asko.

Don Boscoko proiektua posible egin duzuen guzti horiei, esker handiko besarkada bat

IZAN ZARETELAKO, GARA... TA EZ DUGU HUTS EGINGO, ETORRIKO DIREN HORIEK ERE, IZAN DAITEZEN